



## Plazako eskolako neskatillak Errepublika denporan



**I**dade batetik gorako jentia ederki asko akordauko da zela egon zan plaza onduan neskatillantzako **herri-eskola**: orain Turismo Buleguaren gaiñan eta parrokixako klaustro aldera begira daguen **Txantxiku ikastoliaren** zati horretan, han zuzen be.

Ikastola horra ekarri aurretik hamaika eskola-klase jarri euen inguru horretan. Hasi jesuitten kolejixo famautik XVI. mendian eta 1960ko hamarkadan mutikuentzako herri-eskola barrixa haundi zu zan arte, ixa eten barik egon zan paraje horretan une oñiatirrentzako ikaslekuaren bat. Dana dala, neskatillantzako eskola hau jesuitten elizia egondako lekuaren jaso euen 1870 aldera eta zeregin horretan jarraitu eben ehun bat urtian; pisu bakarrarekin hasieran eta birekin XX. mendeko lehenengo hamarkadatik aurrera.

Gaurko fotografixan agiri diran umiak 1932-1933 urte inguruak dittugu, hau da, II. Errepublika denporakuak. Maistra Dofia **Crescencia Macías Casaseca** zan, Zamorakua. Neskatilla gehixenak kaleetarrak ziran, eta bi mutikuok, barriz, maistriaren semiak. Ezta erraza izan zeintzuk diran jakitina, bañia informatzaile askoren laguntzaiaz ixa danak ezagutu dittugu. Hona hemen euron izenak goitik behera eta ezkerretik eskumara:

**Goixeneko illaran:** Isabel **Arabaolaza**, Lolita **Osinaga**, Juanita **Urrestarazu**, Maritxu **Jauregialzo**, Anjelita **Madinabeitia**, Juanita **Biaín**, Frantziska **Anduaga**, Marina **La Quintana** eta Juanita **Horostidi**.

**Bigarren illaran:** Miren **Arrazola**, Gregori **Ugarte**, Maixabel **Aranguren**, Iñaki **Iriarte**, Bibiana **Biaín**, Manolito **Domínguez**, Felisa **Arregi**, Carmen **Santa Kruz** eta Maritxu **Gómez**.

**Hirugarren illaran:** Maritxu **Markuleta**, Klara **Agirre**, Bixenta **Olalde**, Carmen **Aldanondo**, Karlota **Maiztegi**, X. X. **Crescencia Macías**, maistria, Klementina **Ugarte**, Arantxa **Zulueta**, Pilar **Barrena** eta Rufina **Aranburu**.

**Beheko illaran:** Manolito, maistriaren semia, Mari Luz **La Quintana**, Agustina **Mendiola**, Anita **Lizarralde**, Kontxi **Rodríguez**, Paquito, maistriaren beste semia, Anjeles **Olalde**, Maria Antonia **Galdos** eta Dolores **Aranburu**.

J. E.

Argazkixa Jabier Arriaranen bitartez heldu xaku. Argibidiak, barriz, Axun Arzuaga, Jabier eta Als  
Gereka, Rufina Aranburu, Isabel Arabaoalaza eta Pilar Barrenak eskuratu doskue. Milla esker danonti.